

EUSKO JAURLARITZA

LAN ETA ENPLEGU SAILA

Gipuzkoako Lurralde Ordezkaritza

EBAZPENA, Lan eta Gizarte Segurantzako Lurralde ordezkaritza eta langileen ordezkariek sinatu zuten aipatutako hitzarmen kolektiboaren erregistro, gordailu eta argitarapena agintzen duena (20101772012017 kodea).

AURREKARIAK

Lehenengoa. 2022ko martxoaren 16an enpresako zuzendaritzak eta langileen ordezkariek sinatu zuten aipatutako hitzarmen kolektiboa.

Bigarrena. 2022ko apirilaren 13an aurkeztu zen Lurralde Ordezkaritza honetan, adierazitako hitzarmenaren erregistro, gordailu eta argitalpen eskaera.

ZUZENBIDEKO OINARRIAK

Lehenengoa. Urriaren 23ko 2/2015 Legegintzako Errege Dekretuak onartutako Langileen Estatutuaren Legearen testu bateginaren 90.2 artikuluan aurreikusitako eskuduntza, lan agintaritza honi dagokio, honako arautegia arabera: Lan eta Enplegu Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen, urtarrilaren 19ko 7/2021 Dekretuaren 14.1.g artikulua (2021-01-29ko *Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria*); urtarrilaren 25eko 9/2011 Dekretua (2011-2-15eko *Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria*) eta maiatzaren 28ko 713/2010 Errege Dekretua (2010-6-12ko *Estatuko Aldizkari Ofiziala*), hitzarmen eta akordio kolektiboen erregistro eta gordailuari buruzkoak.

Bigarrena. Sinatutako hitzarmen kolektiboak aurretik aipatutako Langileen Estatutuaren Legearen 85, 88, 89 eta 90 artikuluek xedatutako baldintzak betetzen ditu.

Honen ondorioz,

EBATZI DUT

Lehenengoa. Hitzarmen eta Akordio Kolektiboen Erregistroan inskribatzeko eta gordailutzeko, eta aldeei jakinarazteko agindua ematea.

Bigarrena. Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratzeko agintzea.

Donostia, 2022ko apirilaren 25a.—Victor Monreal de la Iglesia, lurralde ordezkaritza. (2788)

UTE Urola Debaldea 2021 enpresaren Hitzarmen Kolektiboa.

1. artikulua. Langile-, funtzio- eta lurralde-eremua.

Hitzarmen honek UTE Urola Debaldea 2021 enpresako langile guztiei eragingo die, «Gipuzkoako Lurralde Historikoko UD eskualdean (Urola Debaldea) lehentasunezko eta oinarrizko sareetako errepideetan eta bizikleta bideetan artapen eta ustiapen lanak egiteko» kontratuari dagokionez.

GOBIERNO VASCO

DEPARTAMENTO DE TRABAJO Y EMPLEO

Delegación Territorial de Gipuzkoa

RESOLUCIÓN del Delegado Territorial de Trabajo y Seguridad Social, por la que se dispone el registro, publicación y depósito del convenio colectivo de la empresa UTE Urola-Debaldea 2021 (código 20101772012017).

ANTECEDENTES

Primero. El día 16 de marzo de 2022 se suscribió el convenio citado por la dirección de empresa y la representación de los trabajadores.

Segundo. El día 13 de abril de 2022 se presentó en esta Delegación Territorial solicitud de registro, depósito y publicación del referido convenio.

FUNDAMENTOS DE DERECHO

Primero. La competencia prevista en el art. 90.2 del texto refundido de la Ley del Estatuto de los Trabajadores, Real Decreto Legislativo 2/2015, de 23 de octubre corresponde a esta autoridad laboral de conformidad con el art. 14.1.g del Decreto 7/2021, de 19 de enero (*Boletín Oficial del País Vasco* de 29-01-2021) por el que se establece la estructura orgánica y funcional del Departamento de Trabajo y Empleo, en relación con el Decreto 9/2011, de 25 de enero (*Boletín Oficial del País Vasco* de 15-2-2011) y con el Real Decreto 713/2010, de 28 de mayo (*Boletín Oficial del Estado* de 12-6-2010) sobre registro y depósito de convenios y acuerdos colectivos.

Segundo. El convenio colectivo ha sido suscrito de conformidad con los requisitos de los artículos 85, 88, 89 y 90 de la referenciada Ley del Estatuto de los Trabajadores.

En su virtud,

RESUELVO

Primero. Ordenar su inscripción y depósito en el Registro de Convenios y Acuerdos Colectivos, con notificación a las partes.

Segundo. Disponer su publicación en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa.

San Sebastián, a 25 de abril de 2022.—El delegado territorial, Victor Monreal de la Iglesia. (2788)

Convenio Colectivo de la empresa UTE Urola Debaldea 2021.

Artículo 1. Ámbito personal, funcional y territorial.

El presente Convenio afectará a todas las personas trabajadoras de la empresa UTE Urola Debaldea 2021, del contrato de «ejecución de diversas operaciones de conservación y explotación de las carreteras de la red de interés preferente y básica y de las vías ciclistas de la zona UD (Urola Debaldea) del Territorio Histórico de Gipuzkoa».

2. artikulua. Indarraldia, salaketa eta aurreraeragina.

Hitzarmen kolektibo honen indarraldia 2021eko urriaren 1etik 2023ko abenduaren 31ra artekoa izango da.

Hitzarmenaren amaiera automatikoki iragarriko da 2023ko urriaren 1ean, eta negoziazioei gehenez hilabeteko epean ekiteko konpromisoa hartuko da, aldeetako batek besteari negoziazioaren hasiera idatziz jakinarazten dionetik zenbatzen hasita.

Langileen Estatutuak 86.3 artikuluan xedatutakoaren ondo-rietarako, berariaz adosten da hitzarmenak indarrean jarraituko duela salatu ondoren eta hitzartutako iraupena amaitu ostean, harik eta bi alderdiek hura ordeztzeko beste bat sinatu arte.

3. artikulua. Soldata.

2022 eta 2023an Gipuzkoako Eraikuntza eta Obra Publikoen Hitzarmen Kolektiboan 2022rako eta 2023rako jasotako soldata-taulak aplikatuko dira.

4. artikulua. Lanaldia.

Lan-egutegiaren arabera asteko zazpi egunetan lan egiten duten langileek urtean 1.615 ordu lan egin ahal izango dute gehienez.

Egutegiaren arabera astelehenetik ostiralera bitarteko lanaldia duten langileentzat, Gipuzkoako Eraikuntza eta Obra Publikoen Hitzarmen Kolektiboan ezarritakoa izango da urtean lan egin beharreko gehieneko ordu kopurua.

5. artikulua. Lan-egutegia.

* Astelehenetik ostiralera lan-egutegia.

Egutegiaren arabera astelehenetik ostiralera lan egiten duten langileek zortzi ordu egingo dituzte egunean, besterik adostu ezean. Urteko egutegia urte bakoitzeko urtarrilaren 1a baino lehen prestatuko da.

* Txandakako lan-egutegia.

Egutegiaren arabera errepidean asteko zazpi egunetan aurreko zerbitzua ematen duten langileek honela egingo dute.

- Sei (6) langile, gutxienez, goizeko txandan.
- Sei (6) langile, gutxienez, arratsaldeko txandan.
- Hiru (3) langile, gutxienez, gaueko txandan.

Urte osoan zehar zerbitzuaren beharrak asetzeko, bederatzi talde ezarriko dira. Talde bakoitzean gutxienez hiru langile egongo dira.

Txandak aldatzeko (goizekoa, arratsaldekoa eta gauekoa) eta atsedeen-egunak hartzeko, honela antolatuko dira urte osoan zehar:

- Goizeko txanda (06:00etatik 14:00etara) bost egunez. Lau atsedeen-egun.
- Arratsaldeko txanda (14:00etatik 22:00etara) bost egunez. Lau atsedeen-egun.
- Goizeko txanda (06:00etatik 14:00etara) bost egunez. Lau atsedeen-egun.
- Arratsaldeko txanda (14:00etatik 22:00etara) bost egunez. Lau atsedeen-egun.
- Gaueko txanda (22:00etatik 06:00etara) bost egunez. Lau atsedeen-egun.

Ziklo bakoitza amaitu ondoren, errepikatu egingo da, asteko zazpi egunak urte osoan bete arte (ikus 2. eranskineko egutegia).

Enpresak puntu honetan adostutako lan-egutegia edo lan-modua aldatu nahi badu, lan-baldintzen funtsezko aldaketa baten bidez (Langileen Estatutuaren 41. artikulua), langileen legezko ordezkariarekin akordioa lortu beharko da hura aplikatzeko.

Artículo 2. Vigencia, denuncia y ultraactividad.

La vigencia del presente Convenio Colectivo se extenderá desde el 1 de octubre de 2021 hasta el 31 de diciembre de 2023.

El Convenio quedará automáticamente denunciado el 1 de octubre de 2023, con el compromiso de comenzar las negociaciones en el plazo máximo de un mes desde que una de las partes comunique a la otra por escrito el inicio de la negociación.

Se acuerda expresamente, a los efectos de lo dispuesto en el art. 86.3 ET que, una vez denunciado y concluida la duración pactada, se mantendrá la vigencia del Convenio hasta la suscripción por ambas partes de otro que lo sustituya.

Artículo 3. Retribución salarial.

Para el 2022 y 2023 se abonará la misma retribución salarial que la contemplada para el 2022 y 2023 en el Convenio Colectivo de la Construcción y obras Públicas de Gipuzkoa.

Artículo 4. Jornada laboral.

Para el personal que preste servicio por calendario laboral los siete días de la semana, el número máximo de horas a trabajar, en cómputo anual, será de 1.615 horas.

Para el personal cuya jornada laboral por calendario es únicamente de lunes a viernes, el número máximo de horas a trabajar, en cómputo anual, será lo establecido en cada momento en el Convenio Colectivo de la Construcción y Obras Públicas de Gipuzkoa.

Artículo 5. Calendario laboral.

* Calendario trabajo de lunes a viernes.

El personal que por calendario presten servicio únicamente de lunes a viernes, trabajará ocho horas diarias salvo acuerdo en contrario y el calendario anual estará confeccionado antes del 1 de enero de cada año.

* Calendario trabajo a turnos.

El personal que por calendario presten servicio presencial en carretera los siete días de la semana, lo realizarán de la siguiente manera.

- Seis (6) operarios –como mínimo– en el turno de mañana.
- Seis (6) operarios –como mínimo– en el turno de tarde.
- Tres (3) operarios –como mínimo– en el turno de noche.

Para cubrir las necesidades del servicio durante todo el año, se establecerá nueve grupos formados –como mínimo– por tres operarios por cada grupo.

La rotación entre los diferentes turnos (mañana, tarde y noche) y los días de descanso se realizará de la siguiente manera durante todo el año:

- Turno de mañana (de 06:00 a 14:00 h) durante cinco días. Cuatro días de descanso.
- Turno de tarde (de 14:00 a 22:00 h) durante cinco días. Cuatro días de descanso.
- Turno de mañana (de 06:00 a 14:00 h) durante cinco días. Cuatro días de descanso.
- Turno de tarde (de 14:00 a 22:00 h) durante cinco días. Cuatro días de descanso.
- Turno de noche (de 22:00 a 06:00 h) durante cinco días. Cuatro días de descanso.

Una vez finalizado cada ciclo, se repetirá hasta cubrir los siete días de la semana durante todo el año (ver calendario anexo n.º 2).

En caso de que la empresa pretenda modificar el calendario laboral o la forma de trabajo acordadas en el presente punto mediante una Modificación Sustancial de las Condiciones de Trabajo (art. 41 del ET), requerirá el acuerdo con la representación Legal de los Trabajadores para su aplicación.

* Txanda aldaketa.

Asteko zazpi egunetan txandaka diharduten langileak taldez aldatu ahal izango dira, baldintza hauekin:

- Bi langileek eginkizun berberak beteko dituzte.
- Legez ezarritako lanaldien arteko atsedenaldiak errespetatuko dira.
- Egindako aldaketaren berri eman behar zaio enpresako zuzendaritzari.

Aldaketa egin ondoren, enpresako zuzendaritzak ez du esku hartuko eta ez du kalterik jasango bi aldean arteko balizko desadostasunen aurrean.

6. artikulua. Oporrak.

Langile guztiak izango dute opor-egunak aukeratzeko eskubidea, baldintza hauekin:

Astelehenetik ostiralera diharduten langileak:

1. COEXeko burua eta operazio-burua, hau da, biak oporretan ez egotea.
2. Arduradun guztiak oporretan ez egotea.

Txandaka diharduten langileak:

1. Oporrengatik egutegitik kendu beharreko egunak goizeko eta arratsaldeko txandei dagozkie. Ezin izango dira inoiz gaueko txandatik kendu, kontrakorik adostu ezean.
2. Talde bakoitzeko langile guztiak ez egotea oporretan, kontrakorik adostu ezean.

7. artikulua. Larunbateko plusa, igandeko plusa eta jaiegun-plusa.

Hitzarmen honen eraginpeko langile guztiak, larunbat, igande eta jaiegunetan lan egiten badute, honako plus hauek kobratuko dituzte 2022ko urtarrilaren 1etik aurrera:

- Larunbateko plusa: Larunbatean lan egindako ordu bakoitzeko 4 euroko plusa ordainduko da.
- Igandeko plusa: Igandean lan egindako ordu bakoitzeko 5 euroko plusa ordainduko da.
- Jaiegun-plusa: Urteko 14 jaiegunetako bakoitzean egindako ordu bakoitzeko 6 euroko plusa ordainduko da.

Larunbat, igande eta jaiegun-plus horiek 2023. urtean gogoarritako 2023ko Gipuzkoako Eraikuntzaren eta Obra Publikoen Hitzarmen Kolektiboan soldatentzako ezarritako igoeraren arabera.

8. artikulua. Jarduera-plusa.

2021eko urriaren 1etik aurrera, errepidean aurreko zerbitzua ematen duten langile guztiak jarduera-plusa ordainduko zaie. Plus horren hileko zenbatekoa ezingo da izan erantsitako soldata-taulan 2021erako ezarritako hileko 240 euro baino txikiagoa.

Plus hori hamabi hilekotan ordainduko da interes publikoko zerbitzu bat emateko eskatzen den lanaren konpentsazio gisa.

Erantsitako taulan 2021erako ezarritako plus horren zenbatekoa 2022. eta 2023. urteetan gogoarritako 2022 eta 2023ko Gipuzkoako Eraikuntzaren eta Obra Publikoen Hitzarmen Kolektiboan soldatentzako ezarritako igoeraren arabera.

9. artikulua. Gaueko lanaren plusa.

22:00etatik 06:00etara lan egiten duten langileek gaueko lanaren plusa jasoko dute, orduaren balioaren % 25ekoa, kategoriaren arabera (soldataz kanpoko plusa barne).

* Cambio de turno.

Entre el personal que trabaja por calendario a turnos los siete días de la semana, podrán intercambiarse de grupo, siempre que:

- Ambos trabajadores desempeñen las mismas funciones.
- Se respete los descansos entre jornadas establecidos por ley.
- Se comunique a la Dirección de la empresa el cambio realizado.

La Dirección de la Empresa no intervendrá ni se verá perjudicada ante cualquier hipotética desavenencia entre las partes tras el intercambio.

Artículo 6. Vacaciones.

Todo el personal tendrá derecho a escoger los días de vacaciones siempre que:

Personal de lunes a viernes:

1. No coincidan de vacaciones el/la jefe/a COEX y el/la jefe/a de operaciones.
2. No coincidan de vacaciones todos/as Encargados/as.

Personal calendario a turnos:

1. Los días a restar del calendario por vacaciones correspondan a los turnos de mañana y tarde. Nunca –salvo acuerdo en contrario– se podrán restar del turno de noche.
2. No coincidan por motivo de vacaciones –salvo acuerdo en contrario– la totalidad del personal de cada grupo.

Artículo 7. Plus sábados, plus domingos y plus festivos.

Todo el personal afectado por el presente Convenio que preste servicio los sábados, domingos y días festivos cobrará los siguientes pluses a partir del 1 de enero de 2022:

- Plus sábado: Se abonará un plus de 4 euros por cada hora trabajada en sábado.
- Plus domingo: Se abonará un plus de 5 euros por cada hora trabajada en domingo.
- Plus festivo: Se abonará un plus de 6 euros por cada hora realizada en cada uno de los 14 días festivos del año.

Los citados pluses de sábado, domingo y festivos, se incrementará, para el año 2023, en los mismos términos que los señalados para las retribuciones salariales en el Convenio Colectivo de la Construcción y Obras Públicas de Gipuzkoa en 2023.

Artículo 8. Plus actividad.

A partir del 1 de octubre de 2021 a todo el personal que preste servicio presencial en carretera, se le abonará un Plus de Actividad cuya cuantía mensual no podrá ser inferior a los 240 euros/mes que se establece para el año 2021 en la tabla salarial anexa.

Este plus se percibirá por doce mensualidades y en compensación al trabajo que se realiza por la organización requerida por la prestación de un servicio de interés público.

El importe del citado plus establecido para el año 2021 en la tabla anexa se incrementará, para los años 2022 y 2023, en los mismos términos que los señalados para las retribuciones salariales en el Convenio Colectivo de la Construcción y Obras Públicas de Gipuzkoa en 2022 y 2023.

Artículo 9. Plus nocturnidad.

El personal que preste servicio entre las 22:00 h y las 06:00 h, percibirán un plus de nocturnidad por hora de trabajo equivalente al 25 % del valor hora según categoría (Plus extrasalarial incluido).

10. artikulua. Gabonetako plusa.

Abenduaren 24an, 25ean eta 31n eta urtarrilaren 1ean edozein txandatan lan egin behar izanez gero, Gabonetako plusa ordainduko da, 75 eurokoa, ezarritako gainerako plusak alde batera utzita.

Gabonetako plusa 2022. eta 2023. urteetan igo egingo da, 2022 eta 2023ko Gipuzkoako Eraikuntzaren eta Obra Publikoen Hitzarmen Kolektiboan soldatentzako ezarritako igoyeraren arabera.

11. artikulua. Berme pertsonalak.

Hitzarmen honetatik kanpo, soldata-baldintzak, -itunak edo -plusak dituzten langileei edo langile-taldeei errespetatu egingo zaizkie «ad personam» berme gisa. Zenbateko hori hitzarmen honen parte izango da, eta ezingo da murriztu, lan-baldintzak nabarmen aldatzen badira. Kopuru hori kontsolidatua izango da eta ezin izango da xurgatu. Era berean, kontzeptu horiek ez dute inolako gehikuntzarik izango etorkizunean.

12. artikulua. Arau subsidiarioak.

Hitzarmen honetan jasotako arauak arautzen dituzte enpresaren eta hitzarmeneko 1. artikuluan adierazten diren funtzio-, lurralde- eta langile-eremuan sartutako langileen arteko harremanak.

Hitzarmen honetako testuan berariaz jaso gabekoari dago-kionez, 2018-2021eko Gipuzkoako Eraikuntza Hitzarmenaren testuan xedatutakoa beteko da (Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratua), edo, halakorik bada, haren berridazketan ezarritakoari jarraituko zaio.

Edonola ere, hitzarmen honetan jasotako soldata-taulen eta gainerako kontzeptu ekonomikoekin zenbatekoak inoiz ez dira izango indarrean dagoen Gipuzkoako Eraikuntza eta Obra Publikoen hitzarmen kolektiboan ezarritakoak baino txikiagoak, eta, halakorik balitz, horiek eguneratu beharko dira eta dagozkion atzerakinak ordaindu.

13. artikulua. Hitzarmen honetan itundutako lan-baldintzak ez aplikatzea.

Enpresak hitzarmen kolektibo hau aldi batean aplikatu nahi ez badu (arrazoi ekonomikoak, teknikoak, antolaketakoak edo ekoizpenekoak direla eta), horren berri eman beharko dio Batzorde Paritarioari, Langileen Estatutuaren 82.3. artikuluan zehaztutako kontsulta-aldia hasi baino 30 egun lehenago, gutxienez. Kontsulta-aldian langileen ordezkariekin akordiorik lortzen ez bada eta gatazkak konpontzeko lanbide arteko akordio aplikagarrien prozeduretara jota ere desadostasuna konpontzen ez bada (bi alderdiek beren-beregi hala egitea adosten badute soilik joko da arbitrajera), bi alderdien arteko akordioa beharko da (enpresaren ordezkariaren eta langileen ordezkariaren gehiengoaren arteko akordioa, alegia), hitzarmena ez aplikatzeari buruzko desadostasuna ORPRICCEren edo, hala badagokio, Hitzarmen Kolektiboan Aholkularitza Batzorde Nazionalaren esku jartzeko.

14. artikulua. Lan baldintzen funtsezko aldaketa.

Langileen Estatutuaren 41. artikuluan ezarritako lan-baldintzen funtsezko aldaketa egin ahal izateko, aldaketak eragindako langilearen adostasuna beharko da -banakako lan-baldintzen funtsezko aldaketa denean- edo langileen ordezkariena -kolektiboaren lan-baldintzen funtsezko aldaketa denean-; bestela, ezin izango da gauzatu.

15. artikulua. Lanpostuen balorazioa/kategoriak.

Urtero, urtarrilean, langileen legezko ordezkariak eta enpresazuzendaritza bilduko dira lanpostu eta kategoria bakoitza baloratzeko.

Artículo 10. Plus Navidad.

En el supuesto de tener que prestar servicio en cualquiera de los turnos de trabajo los días 24, 25 y 31 de diciembre, así como el día 1 de enero, se abonará un «Plus Navidad» equivalente a 75 euros por cada día al margen de los demás pluses establecidos.

El Plus Navidad se incrementará, para los años 2022 y 2023, en los mismos términos que los señalados para las retribuciones salariales en el Convenio Colectivo de la Construcción y Obras Públicas de Gipuzkoa en 2022 y 2023.

Artículo 11. Garantías personales.

Las/os trabajadoras/es o grupo de trabajadoras/es que gocen de condiciones, pactos o pluses salariales al margen de este Convenio, se les respetarán como garantía «ad personam». Esta cantidad formará parte del presente convenio, no pudiendo aminorarse por modificaciones sustanciales de las condiciones de trabajo. Dicha cantidad será consolidada y no absorbible. Así mismo estos conceptos no tendrán en el futuro incremento por concepto alguno.

Artículo 12. Normas subsidiarias.

Las normas contenidas en el presente Convenio regulan las relaciones entre la Empresa y su personal comprendido dentro del ámbito Funcional, Territorial y Personal que se expresan en el artículo 1 del mismo.

En lo no previsto expresamente en el texto del presente Convenio se estará a lo dispuesto en el texto del Convenio de la Construcción de Gipuzkoa 2018-2021, publicado en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa, o en su defecto, la revisión que del mismo se realice.

No obstante, las tablas salariales y el resto de los conceptos económicos recogidos en el presente Convenio, nunca serán inferiores a los establecidos en el vigente Convenio Colectivo de la Construcción y Obras Públicas de Gipuzkoa, debiendo actualizarse los mismos y abonarse los correspondientes atrasos si se diera el caso.

Artículo 13. Inaplicación «descuelgue» de las condiciones pactadas en este Convenio.

En caso de que la empresa pretendiera la inaplicación temporal del presente Convenio Colectivo (por motivos económicos, técnicos, organizativos o de producción), deberá poner dicha pretensión en conocimiento de su Comisión paritaria con una antelación mínima de 30 días al inicio del periodo de consultas al que refiere el art. 82.3.ET. En caso de que no se llegara a un acuerdo con la representación de las personas trabajadoras en el periodo de consultas, y los procedimientos para la resolución de conflictos de los acuerdos interprofesionales que fueran de aplicación no resolvieran la discrepancia (el arbitraje se producirá únicamente por el sometimiento expreso de ambas partes), será necesario el acuerdo entre ambas partes (representación de la empresa y mayoría de la representación de las personas trabajadoras) para someter el desacuerdo sobre la inaplicación al ORPRICCE o, en su caso, a la CCNCC.

Artículo 14. Modificación sustancial de las condiciones de trabajo.

La Modificación Sustancial de las Condiciones de Trabajo del art. 41 del ET, exigirá del acuerdo bien con el trabajador afectado (MSCT individuales) bien con la representación de las personas trabajadoras (MSCT de carácter colectivo), no pudiendo llevarse a efecto en otro caso.

Artículo 15. Valoración de puestos de trabajo/categorías.

Todos los años y durante el mes de enero, la representación legal de los trabajadores y la Dirección de la empresa se reunirán para valorar cada puesto de trabajo y categoría.

16. artikulua. Nominen ordainketa.

2022ko urtarrilaren 1etik aurrera, Gipuzkoako Eraikuntza eta Obra Publikoaren sektoreko hitzarmen kolektiboak ezarritako urteko ordainsari gordina hamabi ordainsari berdinetan banatuko da, aparteko bi ordainsariak kenduta. Aparteko bi ordainsari horiek Eraikuntza Hitzarmen Kolektiboan kategoría bakoitzeko ezarritakoaren arabera ordainduko dira.

17. artikulua. Soldata-eta plusak.

2021erako soldata-eta plusak eta 2022rako larunbat, igande eta jaiegun-plusak 1. eranskinean ezarritakoak dira.

Gipuzkoako Eraikuntza eta Obra Publikoaren sektoreko hitzarmen kolektiboan 2022 eta 2023 urteetarako ordainsariak finkatu ondoren, enpresaren hitzarmen kolektibo honetako urte bakoitzerako soldata-eta plusak egingo dira.

18. artikulua. Batzorde Paritarioa.

Batzorde paritario bat sortuko da, hitzarmenaren sinatzaileek osatua. Gehienez 2 kide izango ditu: batek alderdi soziala ordezkatuko du, eta besteak enpresarena.

Batzordeko bi alderdietako edozeinek hura biltzea eskatuz gero, gehienez ere 15 eguneko epean bildu beharko da, eta planteatzen diren auziak bilera egin eta gehienez ere 15 eguneko epean ebatzi beharko dira.

Batzordearen eskumenak:

- A. Hitzarmen kolektibo honetako arau oro interpretatzea.
- B. Hitzarmen honetan bildutako konpromisoak garatzea.

Batzorde paritarioa bilduko da ordezkaritzetako edozeinen herenek hala eskatzen badute, esleitu zaizkien eskumenak baliatuz. Batzorde paritarioko ordezkaritza sindikal bakoitzak eta enpresa-ordezkaritzak gehienez ere bi aholkulariren laguntza izan dezakete, hitzarekin baina botorik gabe. Kide guztiek izendatu ahal izango dute ordezkoa, batzordeari alde aurretik abisatuta.

Batzorde paritarioaren erabakiak baliozkoak izan daitezen, ordezkaritza bakoitzaren botoen % 51k berretsi beharko ditu.

Batzorde paritarioan desadostasunik sortuz gero, Lan Gatazka Judizial Kanpo Konpontzeari buruzko II. Akordioan (GEP II) arautzen diren prozeduren arabera ebatziko da (2000/04/04ko Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria).

Batzorde paritarioko titularrek baimen ordaindua hartzeko eskubidea dute batzordea biltzen den egunetarako, eta enpresak ordainduko ditu jardun horretan sortutako gastuak.

Artículo 16. Pago de nóminas.

A partir del 1 de enero del 2022, la retribución bruta anual establecido –según categoría– por el Convenio Colectivo de la Construcción y Obras Públicas de Gipuzkoa, se dividirá en doce pagas iguales excluidas las dos pagas extras. Estas dos Pagas extraordinarias se abonará según lo establecido en el citado Convenio Colectivo de la Construcción para cada categoría.

Artículo 17. Tablas salariales y pluses.

Las tablas salariales y los pluses para el año 2021 así como los pluses de sábados, domingos y festivos para el 2022 son los establecidos en el anexo n.º 1.

Una vez fijadas las retribuciones salariales en el Convenio Colectivo de la Construcción y Obras Públicas de Gipuzkoa para los años 2022 y 2023, se realizarán –acorde a ello– las tablas salariales y los pluses correspondientes para cada año del presente Convenio Colectivo de Empresa.

Artículo 18. Comisión Paritaria.

Se constituye una Comisión Paritaria formada por los firmantes del Convenio con un máximo de 2 miembros, uno por la parte social y otro por la parte empresarial.

Solicitada la convocatoria por cualquiera de las dos partes de dicha Comisión, ésta deberá reunirse en el plazo máximo de quince días y las cuestiones planteadas se resolverán en un plazo máximo de quince días a partir de la reunión.

Sus competencias:

- A. Interpretación de cualquier norma de este Convenio Colectivo.
- B. Desarrollar los compromisos contenidos en el presente Convenio.

La Comisión Paritaria se reunirá siempre que un tercio de cualquiera de las representaciones lo solicite en virtud de las competencias atribuidas. Cada representación sindical así como la representación empresarial de la Comisión Paritaria podrá ser asistida de dos asesores como máximo, con voz pero sin voto. Cualquier miembro podrá tener suplente previo aviso a la comisión.

Para que los acuerdos de la comisión paritaria tengan validez deberán ser refrendados por el 51 % de los votos de cada representación.

Las discrepancias producidas en el seno de la Comisión Paritaria se solventarán de acuerdo con los procedimientos regulados en el II Acuerdo sobre Solución Extrajudicial de Conflictos Laborales –Preco II– (Boletín Oficial del País Vasco de 04/04/2000).

Los miembros titulares de la Comisión Paritaria tendrán derecho a permiso retribuido para los días en que se reúna ésta y los gastos originados en el desempeño de esta labor serán sufragados por la empresa.

ERANTSITAKO 1. TAULA

2021

Kategoria	Urteko soldata gordina	Plusa jarduera	Gauneko lanaren plusa orduko	Plusa Gabonak	Orduak aparteokak
OBRA-ARDURADUNA	32.341,73 €	240,00 €	3,93 €	75,00 €	32,96 €
LANGILEBURUA	30.343,73 €	240,00 €	3,68 €	75,00 €	30,90 €
ESPEZIALISTA	30.343,73 €	240,00 €	3,68 €	75,00 €	30,90 €
1. MAILAKO OFIZIALA	28.722,53 €	240,00 €	3,50 €	75,00 €	29,22 €
2. MAILAKO OFIZIALA	27.763,48 €	240,00 €	3,37 €	75,00 €	28,22 €

Kategoria	Urteko soldata gordina	Plusa jarduera	Gauneko lanaren plusa orduko	Plusa Gabonak	Orduak apartekoak
LAGUNTZAILEA	26.917,91 €	240,00 €	3,28 €	75,00 €	27,35 €
PEOI ESPEZIALISTA	25.844,61 €	240,00 €	3,14 €	75,00 €	26,24 €
PEOI ARRUNTA	25.253,60 €	240,00 €	3,11 €	75,00 €	25,83 €

LARUNBATEKO, IGANDEKO ETA JAIEGUN-PLUSA (2022)

Kategoria	Larunbateko plusa orduko	Igandeko plusa orduko	14 jaieguneko plusa orduko
OBRA-ARDURADUNA	4,00 €	5,00 €	6,00 €
LANGILEBURUA	4,00 €	5,00 €	6,00 €
ESPEZIALISTA	4,00 €	5,00 €	6,00 €
1. MAILAKO OFIZIALA	4,00 €	5,00 €	6,00 €
2. MAILAKO OFIZIALA	4,00 €	5,00 €	6,00 €
LAGUNTZAILEA	4,00 €	5,00 €	6,00 €
PEOI ESPEZIALISTA	4,00 €	5,00 €	6,00 €
PEOI ARRUNTA	4,00 €	5,00 €	6,00 €

* Gainerako kategorietan, Enpresako Hitzarmen Kolektibo honetan ezarritakoaren arabera kalkulatu da.

TABLA ANEXA N.º 1

2021

Categoría	Salario bruto anual	Plus actividad	Plus hora nocturnidad	Plus Navidad	Horas extras
ENCARGADO DE OBRA	32.341,73 €	240,00 €	3,93 €	75,00 €	32,96 €
CAPATAZ	30.343,73 €	240,00 €	3,68 €	75,00 €	30,90 €
ESPECIALISTA	30.343,73 €	240,00 €	3,68 €	75,00 €	30,90 €
OFICIAL DE 1.ª	28.722,53 €	240,00 €	3,50 €	75,00 €	29,22 €
OFICIAL DE 2.ª	27.763,48 €	240,00 €	3,37 €	75,00 €	28,22 €
AYUDANTE	26.917,91 €	240,00 €	3,28 €	75,00 €	27,35 €
PEÓN ESPECIALISTA	25.844,61 €	240,00 €	3,14 €	75,00 €	26,24 €
PEÓN ORDINARIO	25.253,60 €	240,00 €	3,11 €	75,00 €	25,83 €

PLUS SÁBADO, DOMINGO y FESTIVOS (2022)

Categoría	Plus hora sabado	Plus hora domingo	Plus hora 14 festivos
ENCARGADO DE OBRA	4,00 €	5,00 €	6,00 €
CAPATAZ	4,00 €	5,00 €	6,00 €
ESPECIALISTA	4,00 €	5,00 €	6,00 €
OFICIAL DE 1ª	4,00 €	5,00 €	6,00 €
OFICIAL DE 2ª	4,00 €	5,00 €	6,00 €
AYUDANTE	4,00 €	5,00 €	6,00 €
PEÓN ESPECIALISTA	4,00 €	5,00 €	6,00 €
PEÓN ORDINARIO	4,00 €	5,00 €	6,00 €

* En el resto de las categorías se calcularía en base a lo establecido en el presente Convenio Colectivo de Empresa.